



Marra urdin pintxeei ez!

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 JOSU SANTESTEBAN

Badira aste batzuk auzo honetan ezohiko bizia dagoela. Kontzertuak, giroa eta beste aspaldiko partez, Txantreako agendaren parte dira. Asteburu honetan zita dugu, berriz ere, elkartasunetik eta parrandatik asko duena: Margolari eguna.

Artistikotik ordea gutxi du ospatzeko. TAOk urtebete egin du Txantreako kaleetan, eta urtebete da, beraz, auzokide talde handi batek erresistentzia eta as-mamen handiz marra urdinen gainean pintura zuria jarri zuela. Urtebete, horietako batzuk zifra handiko kalte-ordainekin isundu zituztela. Isunok pagatzeko jaialdia da, beraz, larunbat honetakoa, eta Zopilotes-ek girotuko du iluntzea.

Sarrerak agortutak (sic) daudela jartzzen du kartelean. Ateak ireki orduko

inor gutxi bildu da larunbat arratsalde euritsuan Auzotegira. Atenenak musika jartzaileei egokitu zaie aretoa bertzea, baina barrako txandalariok baino ez gaude hasieran. Ilundu orduko hasi dira gerturatzen lehenengo festazale solidarioak.

Ez da sekretua nafarroi mexikar rantxerak gustatzen zaizkigula, eta are gehiago Zopilotes baldin badira. Kontzertu luzea izan da, eta arreta gehiegirik ezin jarri ibili gara kaña, kalimotxo eta konbinatuak prestatu bitartean. Kanta ezagun asko, mitikoak. Eta belarrrira jo didan berriren bat ere bai. Aspaldi ez nituela jarraitzen, baina beti bezain alai (balada tristeren bat kenduta, noski) eta beti bezain erromantiko aritu dira.

LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

NOIZ: azaroaren 26an

NON: Auzotegi Kultur Etxea
(Txantrea)

Konejo abeslariak ez du hutsik egin. Espero genituen haren hitz batzuk, abesti eta abesti artean: *Auzo pintxe pendejo borrokalaria honetan...* Badaki ego handia duen auzoko bizilagunei are harroago egon daitezten esan beharrekoak esaten, txantrearrak are txantrearrago egiten.

Bukatzerako kultur etxea lepo dago, auzotarrez nahiz kanpotarrez. Bero handia egiten du kanpoko eguraldi makurraren aldean. Eta lan handia behar dute antolatzaileek entzuleak mugiarazteko. Elkartasun jaialdia parranda zoro bihurtu da kasik. Baina esker onez agertu dira isundutakoak, izandako harrera beroarekin eta musikariekiko esker onez. Zorte pixka batekin, auzoak bizia izaten jarraituko du hurrengo hilabeteetan ere. Ez da dila izan halako arrazoiengatik ordea. ●